

IRURA

Osakidetzako ONA txartela eskuragarri dago Iruran

19.02.08 - NÚÑEZ

IRURA. DV. Osakidetzak osasun txartel berria atera du, EAEko biztanle guztiek atera beharko dutena. Irurako herritarrek Anoetako KzGunean eskatu behar dute txartel berria. Horretarako, DNI-NAN agiria eta Osakidetzako txartela eramán behar dira. Eskakizun bakarra 18 urtetik gora izatea da. Anoetako KzGunea solkorre kalean kokatuta dago, Udaletxearen atzean, eta ostiraletan arratsaldeko ordutegia egokitu da txartela lortzeko, 16:00etatik 20:00etara.